

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure funtsezko elkarteak Donostiako aparkaleku guztiak dira, hau da, aparkalekuetako enpresak. Hauek baitira gure negozioak funtzionatzeko beharrezkoak diren enpresak. Izan ere, hauen baitan dago oinarrituta gure negozioa, haiek gabe ezingo genuke ezer egin.

Honez gain, beharrezkoa zaigun beste aliantza bat honako hau da: informatikari bat. Geure kabuz aplikazio bat sortzeko gai ez garenez, horretan aditua den batengana jo beharko dugu aplikazioa sortu ahal izateko.

Funtsezko enpresa horiez gain, publizitatea kudeatuko digun enpresaren bat ere beharrezkoa izango zaigu. Izan ere, guk ez dakigu publizitatea kudeatzen eta horretarako aliantza hau ezinbestekoa izango zaigu.

Gainera, gure aplikazioa jendeak eskuragarri izateko “google” eta “apple”-eko plataformetan egongo da, hain zuzen ere, “Play Store” eta “App Store” plataformetan. Horregatik bi enpresa hauek ere izango dira gure funtsezko elkarteetako batzuk, gure bezeroetara iristeko ezinbesteko bitartekariak izango direlako.

Narrea Etxebeste
Beñat Rios
Asier Alkorta
Martxel Parrondo
Oihane Elizegi

